

Bidaiariarena

11

BIDEOAREN EDUKIAREN LABURPENA

Bideoa lau zati edo atal nagusitan dago zatitua. Gehienetan, ataleko albiste bat jorratzen da. Atalek euren helburu eta edukiak dituzte. Atal bakoitza bere izenburuarekin hasten da eta, ia beti, bukatzen atalean landutako hainbat kontzeptu gramatikal, pantaila bereziaz gogoratuz.

Gida didaktiko honetan pantaila bereziak dituzten atalak **“Pantaila gramatikal berezia”** leloaz adierazten dira.

Pantaila berezi hauetan, atalean esandako esaldi bat edo gehiago errepikatu ondoren, esaldiak gordetzen duen kontzeptu gramatikala adierazten da, errotulu bidez. Horregatik, pantaila hauetara iristean, agertzen dena landu ahal izateko, bideoa gelditzea proposatzen da.

OHARRA: Zintaren hasieran, 2 minutuz, koloretako ohiko barrak eta txistu hotsa dituzu zure telebistaren koloreak eta hotsa egokitzeko.

Lehen kanpai hotsa entzutean, jarri zure bideoaren denbora neurgailua 00:00etan.

SARRERA - KULTURA (00:00)

Bakarne Miruk ikuslegoa agurtzen du, eta eguneko albisteen laburpena egin ondoren, kultura atalari sarrera ematen dio. Jon Miru aurrezki kutxaren aretoraino joan da *Bidaikas* taldeak antolatu duen bidaiaren aurkezpenera. Bere asmoa antolatzailearekin hitz egitea zen, baina ez du harrapatu. Hori bai, bidaiaren promoziorako bideoa eman diote eta horixe erakutsiko digu.

Bideoan *Bidaikas* taldeak antolatu duen bidaiaren berri ematen da. Iruñean hasten da eta, bukatu, Iruñean bertan bukatzen da. Bien bitartean, Hego Euskal Herriko hainbat toki interesgarri bisitatzen dira. Toki guztiek Euskal Herriko historiaurrearekin zerikusia dute.

“Pantaila gramatikal berezia”

GIZARTEA (00:00)

Ana Miru bidai agentzia bateraino joan da. Bidai agentziaren izena *Joan-etorri* da eta uneoro bere bidaiarien berri izateko teknologia oso aurreratua erabiltzen du. Karlos da bidai agentziaren arduraduna. Karlosek teknologia horiek nola erabiltzen dituzten azaltzen digu. Horrela bada, Eskandinavia aldean dabilzan bi autobus gidariek hitz egin ahal izango dute. Autobus gidariek ere euren artean hitz egiteko abagunea izango dute.

“Pantaila gramatikal berezia”

INGURUMENA (00:00)

Oraingoan, Mirenek bi mendizale bitxirekin egin du topo. Bi mendizaleak Euskal Herria zeharkatu nahi dute mendebaldetik ekialdera, oinez, mendirik mendi. Mirenek Aralarren harrapatu ditu. Bi mendizaleak Pako eta Sorkunde dira. Euren ahoetatik entzungo dugu egitasmoaren berri.

“Pantaila gramatikal berezia”

HELBURUAK ETA EDUKIAK

SARRERA - KULTURA

HELBURUA

Euskarazko testuak informatzeko erabiltzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Ingurumaria / Trikuharria / Harrespila / Kobazuloa / Arbasoa /

ESAMOLDEAK

Zein baino zein ederragoa / Bata bestearen ondoan / Besterik gabe / Hasitako lekuan bukatu /

ADBERTSATIBOAK

Gustatzen zait bidaiatzea, **baina** badakizue, lana ere egin behar da. **Dena dela**, pozik nago.

ERLATIBOZKOAK

Jonek *Bidaikas* taldeak **prestatu duen bidai baten** berri emango digu.

Jonek **bidaiia baten** berri emango digu.

Bidaikas taldeak **bidaiia bat** prestatu du.

NONDIK NORA

(ikus pantaila gramatikal berezian)

Oiartzundik Donostiara. Aralarretik Oiartzunera. Iruñetik abiatuko gara.

ADITZ ASPEKTUA: -ETORKIZUNA-

(ikus pantaila gramatikal berezian)

Aralarrera joango gara.

Harrespil ikusgarriak **bisitatuko** ditugu.

Bideoa **ikusiko** dugu.

DENBORAZKO LOKAILUAK: -ONDORENGOAK-

Gosaldu **ondoren**, / Gosaldu **eta gero**, / Bazkaldu **ostean**,
Behar bezala **gosaldutakoan**

(ikus pantaila gramatikal berezian)

KULTURA

Euskal Herriko historiaurrearen lekuko interesgarriak gordetzen dituzten tokiak ezagutzera ematen dira.

GIZARTEA

HELBURUA

Elkarrizketen ulermena lantzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Bidai agentzia / Uneoro / Ibilgailu /

ESAMOLDEAK

Eskerrak eman nahi dizkizut / Ez didazu ezer eskertu behar / Eguzkiak gogoz berotzen du / Dena primeran doa / Pozten naiz / Zatozte nahi duzuenean, besoak zabalik hartuko zaituztegu

ADITZ TRINKOAK: -EGON, ETORRI, JOAN-

Orain errepidean **gaude** / Kirunatik **gatoz** eta Narvikera **goaz**

(ikus pantaila gramatikal berezian)

ELKARKARIAK

Beraz, hotelean **bat egingo dugu.** / Beno, hotelean **elkar ikusiko dugu.**

(ikus pantaila gramatikal berezian)

KAUSAZKOAK: -BAITA-

Horixe **baita** bidaiaren baten baldintzarik garrantzitsuena.

LEKUZKO ADBERBIOAK: -HEMEN, HOR, HAN-

-HONETAN, HORRETAN HARTAN-

Begira, **hemen**, zerrenda **honetan**...

Hor al zaude, Julen?

BALDINTZAZKOAK

Eurekin hitz egin nahi **badugu**...

KONPLETIBOAK: -(E)LA

Jakin dugu uneoro **dakizuela** bidaiarien berri.

INGURUMENA

HELBURUAK

Elkarrizketen ulermena lantzea.

EDUKIAK

ADITZA LEHENALDIAN

(ikus pantaila gramatikal berezian)

Joan den astean hasi **ziren**. (IZAN laguntzailea)

Orain dela hilabete pentsatu **genuen**. (UKAN laguntzailea)

INSTRUMENTALA: -Z

Euskal Herria zeharkatu nahi dute, **oinez**, mendirik mendi.

Ibilgailuak alde batera utzi eta **oinez** ibili.

Gure lagunak datoz **autoz**.

ADITZ TRINKOAK (EDUKI, ERAMAN)

Hamabost egun **dauzkagu**.

Hamabost egunetarako janaria **daramazue** hor, motxilan?

Ondo antolatuta **daukazue** bidaiia.

(ikus pantaila gramatikal berezian)

BIDEOA IKUSI ETA GERO, EGITEKO MODUKO ARIKETA OSAGARRIAK

SARRERA - KULTURA

—Bideoaren atal honetan ikusi dugun bidaiaren antzekoa antolatzea izango da atala lantzeko erarik zuzenena. Horrela bada, ikasleak taldetan banatuko ditugu eta bidaia interesgarri bat prestatu behar dutela esango diegu. Taldeak bost bat lagunekoak eratuko ditugu eta bidaiak partaide adina etapa izan behar dituela adieraziko diegu. Horrela, partaide bakoitzak bere ekarpena eskainiko dio taldeko lanari. Jakina, bidaiaren xehetasunak zehazten hasi aurretik hainbat gauza argitu beharko dituzte, besteak beste:

*Bidaiaren xedea (auzoko berdeguneak erakustea, herrialdeko industria erakustea, herriko eraikuntza historikoak, hegazti migratzaileen bizilekuak...).

*Bidaia nori zuzendua dagoen (haurrei, gazteei, helduei, adinekoei, emakumezkoei...).

*Nola bidaiatuko duten (autoz, autobusez, trenez, oinez...).

*Etapak bakoitzaren nondik norakoa.

Oinarrizko erabaki orokor hauek hartu eta gero, taldeko partaide bakoitza bere zereginetan has daiteke era autonomoan. Ikasleak badaki etapak nondik nora egingo duen, eta tartean, zer toki interesgarri dauden.

Taldeko partaide bakoitzak, orduan, etaparentzat erabaki duten denbora kontuan hartuta, zer toki ikusiko duten eta toki horien berezitasunak idatziz prestatu.

Partaide bakoitzak bere lana egin duenean, taldea berriro bilduko da bidaiari koherentzia emateko.

Behin lan dena bukatu dutenean, taldea beste ikasleen aurrera agertuko da eta, ahoz, bidaiaren berri emango du. Lehendabizi, bidaiaren aurkezpena egingo dute. Ondoren, partaide bakoitzak bere lana aurkeztuko du bidaiak agintzen duen ordenan.

GIZARTEA

—Kontrolatzailearen jolasa.

Jolas honetan aritzeko klasea taldetan banatuko dugu. Ikasleetako bat kontrolatzailea izango da, agentziako ibilgailuen berria duen kontrolatzailea. Beste partaideak gidariak izango dira, munduan zehar dabiltzan ibilgailuen gidariak.

Jolasa, finean, antzezpena da; beraz, egin beharko dugun lehenengo gauza aktoreen testuak prestatzea izango da. Horrela bada, gidariak non dauden, nondik datozen eta nora doazen erabaki beharko dute. Hori eginda, egoera bitxi bat asmatzeko eskatuko diegu (gurpiletako batek zulatua izan duela eta geldialdi txiki bat egin behar izan dutela, edo, elurra egin duenez, errepidea itxita aurkitu dutela...).

Gidariak euren prestatu dutenean, kontrolatzaileak, gidarien arazoak berri duela, bere papera prestatuko du. Alegia, gidarietako bat elurra itxitako errepidean badago, kontrolatzaileak, ikerketak egin eta gero, gidariari zein errepide har dezakeen edo dagoen tokitik gertu zein hoteletan igaro dezaketen gaua edo bestelako irtenbideren bat proposatuko dio. Zulatua izan badu, zulatutako gurpila konpontzeko gertuen dagoen tailerraren berri eman beharko dio.

Ondoren, batzuen eta besteen esanak ez daitezkeen nahas eta esaten direnak moldeztatu ulertzeko, taldeko bakoitzak hitza noiz hartuko duen erabakiko dute.

Kontrolatzaileak toki apropos bat hartuko du gelaren aurrealdean, eta gidariak ikasleen artean nahasturik egongo dira. Kontrolatzailearen ondoan, denek ikusteko moduan, Kontinenteen mapa handiak jarriko ditugu eta kontrolatzaileak mahai gainean hamaika liburu eta paper izango ditu arazoei erantzuna aurkitzeko.

Bakoitzak bere eginbeharra prest duenean, antzezpena hasteko moduan izango gara.

EBALUAZIOA

Sarrera-Kultura eta Gizartea ataletan egin ditugun ekintzak izan daitezke ebaluaziorako aproposak.

Sarrera-Kultura atala aitzakiatzat hartuta egin dugun ariketan ikasleak idatziz eta idatzitakoa ahoz esaten aritu dira. Saioa burutu bitartean, bideoa ikusi aurretik eta bideoa ikustean, landutako kontzeptuez zein neurritaraino jabetu diren antzemango dugu.

Gizartea atalaz baliatuz egin dugun ekintzan ikasleek esan beharrekoa idatziz prestatu dute. Idatzitakoa eskuratuko dugu ikasleen maila zein den jakiteko.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- paperean prestatutako txostena txukun dagoen.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideoa ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Ahozko saioetan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongiosatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren balorazioa egingo dugu.

EBALUAZIOA

Gizartea eta Bilera atalak lantzeko egin dugun ekintza izan daiteke ebaluaziorako aproposa.

Egin dugun bileran, ikasleak, euren arrazoiak plazaratzerakoan nola moldatzen diren, eta bideoa ikusi aurretik eta bideoa ikustean, landutako kontzeptuak zein neurritaraino barneratu dituzten antzemango dugu. Eta ikasleen jarrera nolakoa izan den ere bai.

Gizartea atalaz baliatuz egin dugun gutunean, ikasleek esan beharrekoa idatziz prestatu dute. Beraz, gutunak jasoko ditugu. Gutunetatik aterako dugu, bai bileran esandakoak ulertu dituzten, bai ulertutakoak idazteko gai izan diren. Horrezaz gainera, landutako kontzeptuak erabiltzerakoan nola moldatzen diren eta zein maila duten jakingo dugu.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- egindako gutuna txukun eta bideoan proposatutako arauetara jarraitzen dion.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideoa ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten eta zenbat ez. (Ikaslearen historia egite aldera).

Ahozko saioetan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongi osatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten eta zenbat ez. (Ikaslearen historia egite aldera).

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren ebaluazioa egingo dugu.